



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 12a

93. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako. Artikuluei aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proiektua, 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Akats zuzenketa (7. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (8. or.).
- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena. Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (17. or.).
- Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (18. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Mahaiaren erabakia, azaroaren 5ekoa, Nafarroako Parlamentuko Batzordeak aldatzen dituen (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako.

ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, ondoko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketa Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agindu dut: "Foru Lege proiektua, toki ogasunek transferentzia arrunten bidez Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula ezartzen dituen 2013ko eta 2014ko aurrekontu-ekitaldietarako". Proiektu hori 2012ko irailaren 7ko 70. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

BILDU-NAFARROA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua, Funtsaren Zuzkidura, aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

"2013ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zuzkidura 206.580.332 eurokoa izanen da hasiera batean, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da."

Zioak: Toki entitateek 2013rako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko duten funtsaren zuzkidura 10 milioi euro handitzeak arinduko luke 9. artikuluan aipatzen den berme klausularen aplikazioak dakarren zuzkidura-galera.

2. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2.artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

"2013ko ekitaldi ekonomikorako Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan toki entitateek duten parte hartzeko funtsaren zuzkidura 222.580.332 eurokoa izanen da hasiera batean, eta kopuru hori Nafarroako Aurrekontu Orokorretan agertuko da."

Zioak: Proposatzen dugu funtsa, orokorrean, 26 milioi euro handitzea honako kontzeptuei dagokienez: 16 milioi euro, transferentzia arruntetarako aurreikusten den zenbatekoa handitzeko, eta 10 milioi euro, inbertsioetarako xedapen libreko funtsetarako bestelako laguntzen kontusail bat sortzeko. Kopuru horien justifikazioa kasuko zuzenketa partzialetan jasota dago, eta amaierako emaitza gisa zuzkidura orokor hori egiten dute.

3. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

3. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzeko zuzenketa. "167.939.611" euro dioen tokian "174.439.611" euro esan behar du.

Zioak: Funtsa handitzea, banaketa zuzenagoa izan dadin.

4. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3.1.artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

1. Transferentzia arruntak: 183.113.662 euro.

Zioak: Transferentzia arruntetarako funtsaren zenbatekorako proposatzen den guztizko handitzeari 15.174.051 euro gehitzea, proiektuan jasotakoarekin alderatuta, aurreko foru legean aurreikusitako Transferentzia Arruntan Funtsaren gaurkotze erreala zuzentzeko, 2013rako behar den gaurkotzea gauzatu.

5. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3.2.c) artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“c) Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari: 283.057 €”

Zioak: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari mesedeko tratua eman izan dio Nafarroako Gobernuak, egiaz egiten duen lanari erreparatuz gero. Askok dira aholku-ematearen eta kontsultaren arloa dela-eta toki entitate ugari agerrarazi dituzten gabeziak; izan ere, toki entitate horiek ez dute uste Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa benetako ordezkari-erakunde bat denik. Azken garai hauetan, polemika bat izan da haren zuzendaritzako pertsonak hartu dituzten dieta eta soldatengatik, bai eta udalek batzorde exekutiboan izanen duten ordezkari-erakunde hautatzeko prozedura zaharkituengatik ere.

6. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3.2. artikuluari beste letra bat, d) letra, gehitzeko zuzenketa. Hona haren testua:

“d) Libreki erabakitako kapital transferentziak: 10.000,000 euro, toki entitateen artean banatuko direnak, 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legeko 5. artikuluan ezarritako formula erabiliz”

Zioak: 2009tik 2012ra bitarteko Toki Inbertsioen Plana luzatu zenez eta, horrenbestez, udalek ezin izanen dietenez ekin inbertsio berriei, beharrezko-

tzat jotzen dugu kopuru hori sartzea udalek berek zehaztuko dituzten inbertsioetarako. Uste dugu libreki erabakitzen diren inbertsioak direla hobeki- en egokitzen zaizkionak udal autonomiaren printzipioari, horietatik baitira tokiko eskumenak betetze- ri dagozkionak eta kasuko udalak bere lehentasunen arabera soilik erabakitzen dituenak. Halaber, tresna bat izan daiteke udalek lagun dezaten berpizte ekonomikoan eta lurralde itsatsita- ko inbertsioen bidezko enplegu-sorreran. 2013rako proposatutako zenbatekoa hauxe izanen litzateke: 16/2008 Foru Legean 2009tik 2012ra bitarteko aldirako libreki erabakitako inbertsioetarako ezarri- tako guztizko kopurua zati lau egitearen emaitza.

7. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4.2.artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“2. Transferentzia arruntak eta bestelako laguntzak xede izanik, funtsak 2012rako esleitutako diru kopurua zehazteko, 2013. urterako ezarritakoari gehituko zaio kontsumorako prezioen indizeak Nafarroako Foru Komunitatean izandako igoera, ekainetik ekainera neurtua, gehi beste bi puntu”

Zioak: KPlaren igoeraren irizpidea ez da nahikoa biztanle-kopuruaren handitzeari eta udalek jasan behar izaten duten gizarte zerbitzuen lanaren handitzeari aurre egiteko. Hori berdintzeko, proposatzen da aurreko legearen irizpidearekin jarraitzea; hau da, ekaineko KPlari bi puntu gehitzea.

8. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO****TALDE POPULARRAK****AURKEZTUA**

7. artikuluko lehenengo lerrokada aldatzeko zuzenketa. Hona izanen duen testua:

“Gainerako udalantzako banaketa-formula gizarte kohesioaren eta lurralde orekaren printzipioetan oinarrituko da, eta honako prozeduraren arabera lortuko da:”

Zioak: Lege proiektuari gizarte kohesioaren eta lurralde orekaren printzipioak gehitzea, Nafarroako toki ogasunen finantziarazko printzipio gisa.

9. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Honela idatzita geratuko da:

a) Lehen fase batean, gastu premien indizea lortuko da gastu premiaren zortzi aldagai adierazlearen konbinazio linealaren bidez, haietako bakoitzak gastu hori esplikatzen duen ahalmenaren arabera ponderaturik. Honakoak dira aldagai horiek: entitate bakoitzaren biztanle kopurua, hiri lurzoru garbiaren azalera, 65 urte edo gehiagoko biztanleen kopurua, 5 urte edo gutxiagoko biztanleen kopurua, langabetuak, etorkinak, guztizko azalera eta biztanleria indizearen alderantzizkoa.”

Zioak: Toki entitateen gastu parametroen barruan, beharrezkotzat jotzen dugu sartzea toki entitate bakoitzeko bost urte edo gutxiagoko biztanleak eta langabetuak, zeren eta bi aldagai horiek udaleko gastu- eta zerbitzu-premia handiagoa ekartzen baitiete.

10. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluko c) letran jasotako formula aldatzeko zuzenketa. Hona haren testua:

“7. artikuluko c) letran jasotako formula aldatzeko zuzenketa. Hona haren testua:

$$FTC = 0,9231 \times PPOS + 0,1278 \times PMA65 + 0,1278 \times PMA5 + 0,3355 \times PURS + 0,1341 \times PPINM + 0,1341 \times PD + 0,0083 \times PINVDISP + 0,0074 \times PSUP + 0,2490 \times PCTU - 0,0222 \times PCTR - 0,0760 \times PIAE - 0,0995 \times PIVTM - 0,0895 \times PVCC.$$

Zioak: Formularen sartu ditugu bost urte edo gutxiagoko adineko biztanleen parametroa, 65etik gorako biztanleei aplikatzen zaien indize berarekin, bai eta toki entitate bakoitzeko biztanle langabetuen parametroa ere, biztanle etorkinei aplikatzen zaien indize berarekin.

Sartutako indizeek banaketa formularen azkeneko emaitzan eragina baldin badute, proposatzen dugu indize guztiak proportzioan gutxitzea, zuzenketa honetan proposatutako parametro berrien aintzatespena errespetatuz, haiei dagokien pisu espezifikoarekin.

11. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikuluko c) letran beste bi idatz-zati gehitzeko zuzenketa. Hona haien testua:

“PMA5 da udalerrri bakoitzean 5 urte edo gutxiagoko adina duten biztanleen portzentajea, Nafarroa osoan 5 urte edo gutxiagoko adina duten biztanle guztien baturarekin alderaturik, Iruña kenduta.

PD da udalerrri bakoitzaren biztanle langabetuak adierazteko portzentajea, Nafarroa osoaren biztanle langabetuekin alderaturik, Iruña kenduta.”

Zioak: 7. artikuluari aurkeztu dizkiogun zuzenketeekin bat.

12. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9.1.artikulua aldatzeko zuzenketa. Hona testu berria:

“1. Aurreko artikuluan ezarritakoa aplikatzeari dagokionez, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsetik udal batek transferentzia arruntetan jaso beharreko zenbatekoa ez da izanen, inola ere, aurreko urtean funtsa banatzean transferentzia arruntetan jasotakoa baino gutxiago, gehiturik, betiere, Nafarroako Foru Komunitatean KPla –ekainetik ekainera neurturik– igo den ehunekoa”.

Zioak: Toki entitateek baliabideak gal ditzaten saihestea, urteko prezioen igoerari aurre egiteko.

13. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

9.2 artikuluari lerrokada bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hala eta guztiz ere, formularen emaitza diren alde negatiboen batura guztizko kontusailaren igoera baino handiagoa baldin bada, kontusail hori igo egingen da artikulua honetan ezarritakoa bermatzeko behar den bestean”.

Zioak: Foru lege proiektu honetan proposatzen den funtsaren igoera erreal txikia dela eta, beharrezkoa iruditzen zaigu funtsaren igoera bermatzeko klausula hau sartzea, zuzenketa jasotakoa gertatuko balitz ere.

14. ZUZENKETA**NAFARROA BAI****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

11.2 artikuluari idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Hala eta guztiz ere, formularen emaitza diren alde negatiboen batura handiagoa baldin bada kasuko udalerriko kontzejuei dagokien 100eko 30eko kontsignazio-igoera baino, kontusail hori igo egingen da artikulua honetan ezarritakoa bermatzeko behar den bestean”

Zioak: Beharrezkoa iruditzen zaigu funtsaren igoera bermatzeko klausula hau sartzea, zuzenketan kontzejuen kasurako ere zehaztutakoa gertatuko balitz, 9.2 artikulurako ezarritakoarekin bat etorriz.

15. ZUZENKETA**BILDU-NAFARROA****PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

15. artikuluko c), d), e) eta f) letrak kentzeko zuzenketa. Nafarroako udalentsako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera.

Zioak: Nafarroako udalentsako konpentsazioak, hautetsiak karguan aritzeagatik ordaintzen denak, ez du izan behar atxikitako helburu jakinik, eta kontzeptu horrengatik jasotako dirua gastatzea erabakitzen duten udalek zilegi dute jasotako dirua beste edozertarako erabiltzea.

16. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

15. artikuluari beste letra bat gehitzea, honako testuarekin:

15. artikulua. Nafarroako udalentsako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera.

“g) Aurreko idatz-zatietan jasotako konpentsazioak deuseztatu edo eten egingen dira, honako kasu hauetan:

1. Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen ez-betetzea.

Urte bakoitzerako ematen diren konpentsazioen deuseztapena aplikatuko zaie aipatutako araua ez betetzea ekarri duten jarduketak

babestu dituzten udal eta kontzejuetako alkateari, alkatetzako taldeari eta talde eta zinegotzietan. Halaber, aldeko botoa eman badute edo abstenitu badira osoko bilkuraren, batzordearen nahiz toki entitateko beste edozein organoren erabaki bidez, 24/2003 Foru Legearen ez-betetzea ekarri duten erabakiei dagokienez.

Urteko izaerarekin emandako konpentsazioen etetea gertatuko da 24/2003 Foru Legearen edo administrazio zentral edo autonomikoak abiarazitako jardueren ez-betetzetik eratorritako prozesu judizial edo administratiboan zehar. Eteteak irauten du epai judizial edo administratibo irmo bat izan bitarte. Epai hori dagoenean, berriz, aurreko lerrokan jasotako baldintzak aplikatuko dira, baldin eta epaian erabakitzen bada aipatu foru legearen ez-betetze erabatekoa nahiz partziala egon dela.

Kompentsazioak etetean, urtez urteko ekitaldiak metatuko dira, prozesu judizial edo administratiboa bukatzen ez den bitartean”

Zioak: Nafarroako Sinboloei buruzko Foru Legearen betetzea indartzea.

17. ZUZENKETA**NAFARROAKO PARLAMENTUKO
TALDE POPULARRAK
AURKEZTUA**

15. artikuluari beste letra bat gehitzea, honako testuarekin:

15. artikulua. Nafarroako udalentsako konpentsazioa, hautetsiei karguan aritzeagatik ordaindutakoaren aldera.

“h) Aurreko idatz-zatietan jasotako konpentsazioak deuseztatu edo eten egingen dira, honako kasu hauetan:

1. Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko 9/2010 Foru Legearen ez-betetzea.

Urte bakoitzerako ematen diren konpentsazioen deuseztapena aplikatuko zaie aipatutako araua ez betetzea ekarri duten jarduketak babestu dituzten udal eta kontzejuetako alkateari, alkatetzako taldeari eta udaletako talde eta zinegotzietan. Halaber, aldeko botoa eman badute edo abstenitu badira osoko bilkuraren, batzordearen nahiz toki entitateko beste edozein organoren erabaki bidez, 24/2003 Foru Legearen ez-betetzea ekarri duten erabakiei dagokienez.

Urteko izaerarekin emandako konpentsazioen etetea gertatuko da 9/2010 Foru Legearen edo administrazio zentral edo autonomikoak abiarazi-

tako jardueren ez-betetzetik eratorritako prozesu judizial edo administratiboan zehar. Eteteak irauen du epai judizial edo administratibo irmo bat izan bitarte. Epai hori dagoenean, berriz, aurreko lerrokadan jasotako baldintzak aplikatuko dira, baldin eta epaian erabakitzen bada aipatu foru legearen ez-betetze erabatekoa nahiz partziala egon dela.

Konpentsazioak etetean, urtez urteko ekitaldiak metatuko dira, prozesu judizial edo administratiboak bukatzen ez den bitartean.”

Konpentsazioen deuseztatzea aplikatuko da, halaber, lokal edo eraikin publikoak entitate edo kolektiboek lagatzeko kasuetan, baldin eta indarkeria laguntzeko edo terrorismoaren, talde terroristen edo legez kanpoko erakundeen apologia egiteko edo haiei gorazarre egiteko egoerak gertatzen badira.

Deuseztapena aplikatuko zaie, halaber, lokal edo eraikin publikoetan burututako ekintzei,

baldin eta haietan terrorismoaren biktimen orimenari irain egiten bazaie, biktimen edo haien familien ospe txarra, gutxiespena edo umiliatzea dakarten ekintzen bitartez.

Zioak: Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Legearen betetzea indartzea.

18. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“Bigarren xedapen gehigarria. Foru legearen aplikazioaren gaineko berrikuspen txostena.

Nafarroako Gobernuak, 2012ko abendua baino lehen, foru lege proiektu bat aurkeztuko du, egun toki entitateentzat ezarrita dagoen finantziario sistema aldatuko duena; lehengoaren ordean, proposamen berri bat egiten du, non ezarriko baitira

Nafarroako zergetan parte hartzeko baldintza, portzentaje eta sistemak.

Azterlan horrek udalentsako transferentzia arrunten zenbateko gisa ezarriko du Comptos Ganberari horretarako eskatutako azterlanean jasotzen den zenbatekoa, eta kontuan hartuko du toki maparen berregituraketa eta eskumenen esparruaren birdefinitzea”.

Zioak: Foru lege honen edukia Nafarroako toki entitateentzat duen garrantzi ekonomikoa dela-eta, eta haren aplikazio zuzena egiaztatze aldera, egokitzen da Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publiko guztien fiskalizazio-organoak azterketa hori egin dezan ezartzea.

19. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Eranskinean 3. bis puntu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3 bis. Udallerri bakoitzean 5 urte edo gutxiago adina duten biztanleak. Estatistikako Institutu Nazionalak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarilaren 1ekoa”.

Zioak: 7. artikuluari aurkeztu dizkiogun zuzenketeekin bat.

20. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Eranskinean 5. bis puntu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“5 bis. Langabetuak. Nafarroako Enplegu Institutuak ematen duen datua, urte bakoitzeko urtarilaren 1ekoa”.

Zioak: 7. artikuluari aurkeztu dizkiogun zuzenketeekin bat.

Foru Lege proiektua, 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat antzeman da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2012ko urriaren 31n harturiko Erabakiaren testuan. Erabaki hori 2013rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren ingurukoa zen, eta 2012ko azaroaren 2ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Horrenbestez, ondoko zuzenketa egiten da:

Hauxe esan beharrea:

“Proiektua argitaratzen denetik epe bat irekiko da, 2012ko azaroaren 19ko hamabietan bukatuko

dena, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek osoko zuzenketak aurkeztu ahal izateko”.

Honela behar du:

“Proiektua argitaratzen denetik epe bat irekiko da, 2012ko azaroaren 19ko hamarretan bukatuko dena, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariiek osoko zuzenketak aurkeztu ahal izateko”.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Manu Ayerdi Olaizola jaunak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Pairatzen ari garen krisia azken hamarkadetakoa sakonena da. Krisi horretan gaude murgildurik 2008az geroztik, eta oraindik ez dugu ikusten argirik tunelaren amaieran. Hala ere, krisi horrek ez die berdin eragiten guztiei. Asian, Ozeanian eta Latinoamerikan bizi duten egoera ezin da alderatu Estatu Batuetakoarekin, eta hura, halaber, oso desberdina da Europako errealtatearen aldean. Europa barneko argazkiak ere tonuen izugarriko aniztasuna du. Esate baterako, Alemania eta

Espainia ez dira konparagarriak. Estatuan bertan ere, ñabardurak oso garrantzitsuak dira.

Agerikoa dena da krisiak biktima kopuru esanguratsua eragin duela Nafarroan, enpleguari eta gizarteratzeari dagokienez. 2012a bereziki gogorra eta zaila ari da gertatzen, eta 2013rako aurreikuspenak ez dira hobeak.

Ikuspuntu horretatik, funtsezkoa da halako zerga-bilketa maila ziurtatzea non, ongizate estatuaren oinarriak mantentzeaz gain, jarduera ekonomikoa sortzea ahalbidetuko duen.

Jarduera ekonomikorik ezaren ondorioz, enpresen emaitzak gutxitzen ari dira, eta ondorio zuzena da sozietateen gaineko zergaren bidez biltzen den dirua ere gutxitzen ari dela. Are gehiago, azken urteotako galeren eraginez, enpresak esku-bideak pilatzen ari dira, zerga-oinarri negatibo eta aplikatu gabeko kenkari gisa, halako moduz non, berpizte ekonomikoa iristen denean ere, zaila izanen baita diru-bilketa maila arrazoizkoetara itzultzea.

Bestalde, sozietateen gaineko zerga tresna gisa erabili behar da; hain zuzen ere, jarduera ekonomikoa sortzeko bidea emanen duten jokabideak sustatzeko tresna gisa, eta, bereziki, enplegu egonkorra eta kalitate ahalik eta handienekoa sortzeko eta halako enpleguari eusteko.

Planteatu dugun foru lege proposamenak bi gai horiei heldu nahi die. Batetik, krisi urteotan diru gehiago biltzeko neurriak jasotzen ditu, murriztu egiten baititu aurretik pilatutako zerga-oinarri negatiboak konpentsatzeko aukerak.

Bestetik, ezabatu egiten ditu zenbait mekanismo fiskal, hala nola inbertsioetarako erreserba berezia, ez baitira ondo lotzen gaur egungo errealtatearekin. Balore higigarrietako inbertsio-sozietate kapital aldakorrekoen zerga-tasa superpribilegiatua ezabatu egiten du, eta enpresen sustapenerako sozietateen araubidea ere egokitu egiten du Nafarroan enplegua sortzeko helburura.

Era berean, orain dauden zenbait kenkari aldatu egiten ditu, eta berriren bat sartzen du, sustatzeko, horrela, enpresek izan ditzatela onuragarritzat jotzen diren jokabideak, esate baterako lanaren banaketa, langileek parte izatea sortutako soberakinetan, enpresen kapitalizazioa eta esportazio-jarduera, helburu hartuta, betiere, Nafarroan aberastasuna eta enplegua sortzea.

1. artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 40. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Zerga oinarria murriztu ahalko da, ehuneko 50era arte gehienez ere, justu aurreko hamabost urteetan amaitu ziren zergaldietako likidazio oinarri negatiboen bidez. Bidezkoa den likidazioa edo autolikidazioa beharko dute, aurretik, likidazio oinarri negatibo horiek”

Bi. Indarrik gabe gelditzen da, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, 50. artikuluko 5. idatz-zatiko a) letra.

Hiru. 50. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, c) letra. Testu hau izanen du:

“Artikulu honetako 1. idatz-zatiko a) eta b) letretan definitutako karga-tasak ehuneko bost jaitsiko dira, baldin eta idatz-zati horietan identifikatutako entitateek beren langileekin, zuzendaritza langileak kenduta, adosten badute gutxienez ere zergen aurreko kontabilitate-etekinen ehuneko 25 banatzea. Artikulu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, zuzendaritza langiletzat hartuko dira administrazio-organoetako kide direnak; zuzendaritza nagusia, gerentzia edo baliokidea dutenak, eta zuzenean aurrekoen menpean daudenak”

Lau. 64. artikuluko c) letra aldatzen da. Testu hau izanen du:

“c) Inbertsioa osatuko duten aktibo guztien zenbatekoak ekitaldi bakoitzean honako kopuruetako bat gainditzea:

Ibilgetu materialetan eta higiezinen inbertsioetan lehendik zeuden kontabilitate-balioen baturaren ehuneko 7,5, amortizazioak kenduta.

Izaera bereko aktibo finkoaren kontabilitate-balio guztiaren ehuneko 15, amortizazioak kenduta.

Kontabilitate-balioa zehazteko, begiratuko zaio inbertsioa eginen den ekitaldiaren aurreko zergaldiaren azkenengo egunari dagokion balantzeari, eta egun horretan jardunean dagoen inbertsiopeko aktibo finkoari dagokiona ez da zenbatuko.

Izaera bereko aktibo finkotzat joko da, Kontabilitate Plan Orokorraren edo, baldin badaude, ofizialki onetsitako sektorekako planen kontu berean (hiru digitukoa) sartu dena edo sartuko dena.

Aurreko lerrokadan aurreikusten denaren ondorioetarako, foru lege honetako 17. artikuluko hizpide dituen finantza errentamenduko kontratuen arabera erositakoak ere izaera bereko aktibo finkoetan sartuko dira”

Bost. 68. artikuluko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Lanbide-heziketako jarduerak egiteak eskubidea emanen du kuota likidoan ehuneko 15eko kenkaria egiteko. Enpresa txikiak hizkuntzetako prestakuntza-jarduerak egiten dituztenean, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan haiek definitutako moduan, kenkari hori ehuneko 20koa izanen da”

Sei. Beste artikuluko bat gehitzen da, 70 quater, “Esportazioa sustatzeagatikoen kenkaria” izenekoa. Testu hau izanen du:

“70 quater artikulua. Esportazioa sustatzeagatikoen kenkaria.

1. Enpresek, artikuluko honetako 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat, erreferentziatzko ekitaldian handitu egin badute beren esportazio-ratioa, eskubidea izanen dute erreferentziatzko ekitaldi horretan sortutako kenkariak 1,1rekin biderkatzeko, honako artikuluko babes hartuta: 63.etik 65.era bitartekoak, 66, 68, 69, 70. bis, 70. ter, 70. quinquies eta 71. artikulukoak.

2. Ulertuko da enpresa batek handitu egin duela bere esportazio-ratioa bi baldintza hauek betetzen direnean.

– Ekitaldian eginiko salmenta guztiak kontuan hartuta, estatutik kanpo egindako salmenten ehunekoak 5 portzentaje-puntutan gainditzen badu aurreko ekitaldian egindako ehunekoak; alderaketa hori egiteko, aurreko ekitaldiko portzentajea berdin-berdin kalkulatu beharko da, ekitaldi horretako magnitudeekin.

– Estatutik kanpo eginiko salmentak % 10 igo badira aurreko ekitaldian estatutik kanpo eginiko salmentekin alderatuta.

3. Enpresa txikiak badira, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren arabera, artikuluko honetako 1. idatz-zatian adierazten diren artikuluen babesean sortutako kenkariak 1,25ekin biderkatuko dira, 1,1ekin biderkatu beharrean”

Zazpi. Beste artikuluko bat gehitzen da, 70 quinquies, “Enpresen kapitalizazioa sustatzeagatikoen kenkaria” izenekoa. Testu hau izanen du:

“70 quinques artikulua. Enpresa txikien kapitalizazioa sustatzeagatiko kenkaria.

Enpresa txikiek, foru lege honetako 50.1.b) artikuluan definitutakoaren arabera, kuota likidotik kopuru bat kendu ahalko dute; hain zuzen ere, ekitaldia ixtean dituzten funts berekietatik kendu kapitala, legezko erreserba eta erabil ez daitezkeen gainerako erreserbak, eta emaitza positibo horren ehuneko 1.”

Zortzi. 71. artikuluko 1., 2., 3. eta 6. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

“1. Ekitaldian lan-kontratu mugagabeko plantillaren batez bestekoan zenbat pertsona gehitu diren, aurreko urteko ekitaldiko plantillan horrelako lan-kontratua zutenen batez bestekoarekin alderatuta, pertsona-urteko 4.500 euroko kenkaria aplikatu ahalko da kuotan.

Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldi partzialerako kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduen proportzioaren arabera kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero.

Kenkariak muga bat izanen du; hain zuzen ere, ekitaldi horretan lan-kontratu mugagabedunetan izandako pertsona-urteko gehikuntza, aurreko lerrokadan ezarritako irizpideen arabera kalkulatua, edozein izan dela ere ekitaldi horretan entitatearen plantilla osoaren batez bestekoaren gehikuntza.

2. Aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa berdina edo handiagoa den kasuetan, lan-kontratu mugagabea dutenen plantillaren batez bestekoa igotzen bada plantilla osoaren batez bestekoa igotzen denaren gaineratik, gehikuntza bien arteko diferentziagatik 1.600 euroko kenkaria aplikatuko da.

Baldin eta, aurreko ekitaldiko plantilla osoaren batez bestekoa murriztuta, igotzen bada plantillan lan-kontratu mugagabea dutenen batez bestekoa, aurreko idatz-zatiko kenkaria diferentzia positiboaren gainean gauzatuko da; alegia, aipatu gehikuntzaren eta plantilla osoaren batez bestekoaren

murrizpenaren artean gertatzen den diferentziaren gainean.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aurreikusitako kenkariak 6.000 eta 2.800 eurokoak izanen dira, hurrenez hurren, langile minusbaliatuen batez besteko plantillan gehitutako pertsona-urte bakoitzeko, Minusbaliatuak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 39. artikuluan xedatutakoarekin bat, bereizirik kalkulatuta, eta aurreko zenbakietan ezarritako prozedurak erabiliz.

6. Aurreko idatz-zatietan ezarritako kenkariak bateraezinak izanen dira euren artean. Gainera, baliagarriak izateko, kenkarietarako bide emandako plantilla gehikuntzek hurrengo bi ekitaldietan jarraitu beharko dute, etenik gabe.”

Bederatzi. 167. artikuluko 1. idatz-zatiari beste letra bat gehitzen zaio, D) letra. Testu hau izanen du:

“D) Bere xede sozialaren garapen gisa sortzen dituzten enpresek foru araubidearen arabera ordain ditzatela zergak, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa onesten duen abenduaren 26ko 28/1990 Legearen I. tituluarekin bat.”

Hamar. Hogeita batgarren xedapen iragankorreko 1. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Subjektu pasiboek ekarpenak egin ahal izanen dizkiote foru lege honetako IV. tituluko XI. kapituluko 2. atalak hizpide duen erreserba bereziari, 2012ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako lehenbiziko ekitaldian lorturiko etekinen kargura.”

Hamaika. Hogeita hamazazpigarren xedapen iragankorreko 5. idatz-zatia aldatzen da. Hona testua:

“5. Plantillaren batez bestekoaren gehikuntza kalkulatzeko, lan-kontratu mugagabeduneko pertsona-urteak soilik kontatuko dira. Lanaldi osoaren % 85 baino gutxiagoko lanaldiko kontratua duten langileen kasuan, benetan lan egindako orduak proportzionalki kontatuko dira, eta 1,25ekin biderkatuko dira gero.”

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeztzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Manu Ayerdi Olaizola jaunak Foru Lege proposamen bat aurkeztu du, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamen hau: "Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia."

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatzen baita Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia.

ZIOEN AZALPENA

Pairatzen ari garen krisia azken hamarkadetakoa sakonena da. Krisi horretan gaude murgildurik 2008az geroztik, eta oraindik ez dugu ikusten argirik tunelaren amaieran. Hala ere, krisi horrek ez die berdin eragiten guztiei. Asian, Ozeanian eta Latinoamerikan bizi duten egoera ezin da alderatu Estatu Batuetakoarekin, eta hura, halaber, oso desberdina da Europako errealitatearen aldean. Europa barneko argazkiak ere izugarriko tonu-

aniztasuna du. Esate baterako, Alemania eta Espainia ez dira konparagarriak. Estatuan bertan ere, ñabardurak oso garrantzitsuak dira.

Agerikoa dena da krisiak biktima kopuru esanguratsua eragin duela Nafarroan, enpleguari eta gizarteratzeari dagokienez. 2012a bereziki gogorra eta zaila ari da gertatzen, eta 2013rako aurreikuspenak ez dira hobeak.

Ikuspuntu horretatik, funtsezkoa da halako zerga-bilketa maila ziurtatzea non, ongizate estatuaren oinarriak mantentzeaz gain, jarduera ekonomikoa sortzea ahalbidetuko duen.

Arlo horretan, eta zerga itunduen esparruan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga da dirua biltzeko ahalmen handiena duen zerga.

Bestalde, zerga-bilketaren maila arrazoizkoa ziurtatzeaz gain, langintza horretan ezinbestean errespetatu behar dira ekitate eta gehikortasun printzipioak.

Foru lege proposamenak neurri desberdinak jasotzen ditu. Horietatik lehena da errentamendua direla-eta kapital higiezinak emandako etekin garbien murriztapena. Bere garaian zentzua izan zezakeen, aitortu gabeko errentak aitor zitezela laguntzeko, baina bada garaia neurri hori kentzeko.

Bigarren neurria zerga-oinarriaren zati orokorraren osaerari buruzkoa da. Arrazoizkoa dirudi, espekulazioa ez bultzatze aldera, urtebete baino epe laburragoan sorturiko ondare-gehikuntzak eta -murrizketak zati orokorrean sartzeari, gaur egun egiten den moduan aurrezpenaren zatian sartu ordez.

Hirugarren neurria esanguratsua da, bai bere garrantzi kuantitatiboagatik, bai zergaren gehikortasunean aurrerapauso nabarmena izateagatik. Proposatzen dena da gutxieneko pertsonala, egun zerga oinarriaren murriztapen gisa tratatzen dena, kenkari bihurtzea. Ez dirudi orekatua, ezta bidezkoa ere, errenta altuenek errenta baxuek baino etekin fiskal handiagoa lortzea ustez pertsonen oinarriko beharizanak betetzeko xedea duen kontzeptu batetik.

Laugarren neurria tarifen eskalari buruzkoa da, bai zati orokorrari bai aurrezpenari dagokienez. Egungo eskema mantentzen da, oinarriko tarifa baten gehi egoeraren arabera tarifa gehigarri

baten batura gisa, baina zerga-tasetako batzuk aldatu egiten dira. Zehazki, zertxobait igotzen da errenta altuenei dagokien tarifa eta, halaber, zertxobait jaisten da errenta baxuenei dagokiena.

Bosgarren neurria laneko errendimenduengatiko kenkariari buruzkoa da. Neurri honek ere eragin esanguratsua du zerga-bilketari dagokionez. Egungo egoeran, 12.050 eurotik gorako laneko errendimenduetarako kopuru zehatz bat ezartzen da, 700 eurokoa. Aurkezturiko proposamenaren bidez, babes handixeagoa eman nahi zaie errenta baxuenei, errenta altuenek kenkari txikiagoa izatearen truke.

Azkenik, seigarren neurriak etxebizitzari eragiten dio. Proposatzen da ehuneko 15eko kenkari bakarra mantentzea ohiko etxebizitzaren erosketa berriei dagokionez, edozein izanda ere pertsonaren edo etxebizitzaren inguruabarrak, egun indarrean dauden urteko eta osoko mugak mantenduta. Bestalde, proposatzen da alokairuagatiko kenkaria handitzea, hain zuzen ere errentaren ehuneko 15ekoa eta gehienez ere 900 eurokoa izatetik, errentaren ehuneko 18koa eta gehienez ere 1.100 eurokoa izatera, kenkari hori lortu ahal izateko beharrezkoak diren baldintzak mantenduta.

1. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategina, ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzea.

Bat. 25. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatiak aldatzen dira. Testu hau izanen dute:

“2. Etxebizitzarako ondasun higiezinaren errentamenduetatik eratorriak diren kapital higiezinaren etekinetan honako etekinak sartuko dira: sozietate publiko instrumentalaren bitartekotzarekin eginiko

errentamenduak egiten dituzten etxebizitza-jabeek lortutakoak, Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 13. artikuluan eta Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak eta etxebizitzetarako erai-kinen sustapena arautuko dituen urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuaren 100. artikuluan xedatutako arabera.

3. Erregelamenduz denboran modu nabarmen irregularrean lortutakotzat jotzen diren errendimendu garbi positiboei, edota bi urtetik gorako epean lortutakoei, ehuneko 40ko murriztapena aplikatuko zaie. Errendimenduen sortze-aldiaren zenbaketak, errendimendu horiek era zatikatuan kobratzen badira, kontuan hartu beharko du zatikapen-urteen kopurua, erregelamendu bidez ezarritakoari jarraikiz.”

Bi. 54. artikuluko 1. b) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“b) Ondare-elementuen eskualdatzeak direla eta agerian jartzen eta urtebete baino gehiagoko epean gertatzen diren ondare-gehikuntza edo -murrizketengatik. Halaber, aurrezkiaren atal berezian integratuko dira ohiko etxebizitza eskuratu edo zaharbertzeagatik kapital moduan jasotako diru-laguntzen ondoriozko ondare-gehikuntzak.”

Hiru. 55. artikuluko 3. idatz-zatia (“Gutxieneko pertsonalarengatik”) kentzen da.

Lau. Berrogeigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Hona testu berria:

“58. artikulua aipatzen duen zergaren kuota osoa ondoko zenbatekoekin igoko da:

a) 59. artikulua aipatzen duen likidazio-oinarri orokorrari ondoko eskalako zerga-tasak aplikatzen heldu dena:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		3.825	-2,0
3.825	-76,50	4.674	-1,0
8.499	-123,24	9.027	0,0
17.526	-123,24	13.279	1,5
30.805	75,95	14.675	2,0
45.480	369,45	7.927	2,5
53.407	567,62	34.593	3,0
88.000	1.605,41	37.000	4,0
125.000	3.085,41	50.000	5,0
175.000	5.585,41	125.000	7,0
300.000	14.335,41	Gainerakoa	9,0

b) 60. artikulua aipatzen duen aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalako zergatasak aplikatzen heldu dena:

Liquidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		6.000	1
6.000	60,00	18.000	3
24.000	600,00	Gainerakoa	7

Tributu arloko araudian 59. artikuluko tarifaren edo eskalaren aplikazioa aipatzen baldin bada, eskala hori aplikatuko da, karga osagarria gehituta.”

Bost. 62. artikuluko 1.g) idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“g) Bi seme-alaba edo gehiago dituzten familia unitateen kasuan, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzak badira, a) letran aipatutako portzentajea 100eko 18koa izanen da. Portzentaje hori 100eko 30ekoa izanen da 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen familia ugariak eskuratutako ohiko etxebizitza denean, hain zuzen ere familia-izaera hori dutenek, Familia Ugarietako buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean ezarritakoaren arabera.”

Sei. 62. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“2. Etxebizitzaren alokairuagatik kenkaria.

100eko 18 eta gehienez ere 1.100 euro urteko, subjektu pasiboak zergaldian bere ohiko helbidea den etxebizitzaren alokairuagatik ordaindu dituen diru-kopuruena, betiere ondoko baldintzak tarteko baldin badira:

Subjektu pasiboaren errentak, salbuetsiak kenduta, ez izatea zergaldian 30.000 eurotik gorakoak.

Zergaldian alokairu kontzeptuan ordaindutako diru-kopuruak, salbuetsiak kenduta, subjektu pasiboak zergaldian izandako errenten 100eko 10 gainditzea.”

Zazpi. 62. artikuluko 5.1.a idatz-zatia aldatzen da. Testu hau izanen du:

“5. Lanagatik kenkaria.

“1. Lan etekinak lortzen dituzten subjektu pasiboak diru-kopuru hauek kentzen ahalko dituzte:

a) 9.100 euroko edo hortik beherako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro.

b) 9.100,01 eta 13.500 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 1.294 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 9.100 euro, eta horren emaitza bider 0,135.

c) 13.500,01 eta 31.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro.

d) 31.000,01 eta 45.000 euro bitarteko lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 700 euro ken eragiketa honen emaitza: etekin garbi horien zenbatekoa ken 31.000 euro, eta horren emaitza bider 0,05.

e) 45.000 eurotik gorako lan etekin garbiak dituzten subjektu pasiboak: 0 euro.”

Zortzi. 62. artikulua amaieran 12. idatz-zatia gehitzen da:

“12. Gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria.

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 925 eurokoa izanen da.

Zenbateko horri honako hauek gehituko zaizkio:

a) 225 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Kopuru hori 500 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiago dituenentzat. b) 625 euro, 100eko 33 edo gehiagoko eta 100eko 65 baino gutxiagoko minusbalioetasun gradua frogatzen duten subjektu pasibo ezgaituentzat. Zenbateko hori 2.250 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatuz gero bere minusbalioetasun gradua 100eko 65ekoa edo handiago dela.”

Bederatzi. Hogeita hamabosgarren xedapen gehigarriko 1. idatz-zatia aldatzen da.

“1. Ohiko etxebizitzaren inbertsioagatik kenkariari, testu bategin honen 62.1 artikuluan aurreikusitakoari, dagokionez, babes ofizialeko edo prezio tasatuko etxebizitzaren kalifikazioa jasotzeko baldintzak betetzen dituen etxebizitzaren erosleak zergaldian ordaindutako zenbatekoen kasuan, artikuluko horren a) eta g) letretan ezarritako kenkari-portzentajeak ehuneko bost gehituko dira eta, beraz, 100eko 20koa, 100eko 23koa eta 100eko 35ekoa izanen dira, hurrenez hurren, betiere 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen eskuratutako etxebizitzaren kasuan.”

Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Manu Ayerdi Olaizola jaunak Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Pairatzen ari garen krisia azken hamarkadeta-ko sakonena da. Krisi horretan gaude murgildurik 2008az geroztik, eta oraindik ez dugu ikusten argirik tunelaren amaieran. Hala ere, krisi horrek ez die berdin eragiten guztiei. Asian, Ozeanian eta Latinoamerikan bizi duten egoera ezin da alderatu Estatu Batuetakoarekin, eta hura, halaber, oso desberdina da Europako errealitatearen aldean. Europa barneko argazkiak ere tonuen izugarriko aniztasuna du. Esate baterako, Alemania eta Espainia ez dira konparagarriak. Estatuan bertan ere, ñabardurak oso garrantzitsuak dira.

Agerikoa dena da krisiak biktima kopuru esanguratsua eragin duela Nafarroan, enpleguari eta gizarteratzeari dagokienez. 2012a bereziki gogorra eta zaila ari da gertatzen, eta 2013rako aurreikuspenak ez dira hobeak.

Ikuspuntu horretatik, funtsezkoa da halako zerga-bilketa maila ziurtatzea non, ongizate estatuaren oinarriak mantentzeaz gain, jarduera ekonomikoa sortzea ahalbidetuko duen.

Esparru horretan, eta itundutako zergei dagokienez, ondarearen gaineko zerga da kuantitatiboki garrantzi gutxien duena; baina, aldiz, balio kualitatibo handikoa da, pertsona aberatsenek funts publikoei egiten dieten ekarpena islatu eta zerga-sistemaren oinarriko printzipioak, hala nola ekitatea eta gehikortasuna, indartzen dituen heinean.

2012an, UPN eta PSNren Gobernuak berreskuratu egin zuen 2008ra arte indarrean egondako ondarearen gaineko zerga, baina nabarmen igo zituen gutxieneko mugak, halako moduz non ukitutako ondareak gutxiago izan diren, eta, gainera, zenbateko txikiagoan. Gure iritzian, ikuspegi hori ez da egokia. Uste dugu gure erkidegoko pertsona aberatsenei eskatzen zaien ahaleginak handiagoa izan behar duela. Horretarako, zenbait neurri proposatzen dira.

Lehenik eta behin, zergadunaren ohiko etxebizitzari dagokion zenbateko salbuetsia aldatzen da, 300.000 eurotik 250.000 eurora. Era berean, gutxitu egiten da zerga-oinarritik murriztu ondoren likidazio-oinarria zehazten duen gutxieneko salbuetsia. 700.000 eurotik 300.000 eurora jaitsi da.

Bestalde, 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldien ondorioetarako, karga-tasa aldatzen da, halako moduz non beheereneko tarteetan zerga-ordainketa gutxitu den eta goreneko tarteetan areagotu, ondare handien titularrak izan daitezkeen egiazki ahalegin gehigarri bat beren gain hartzen dutenak.

Era berean, eta denbora-tarte bererako, zergaren kuotaren gehieneko murrizketa aldatzen da, errentaren gaineko zergaren eta ondarearen gaineko zergaren kuota osoen baturak errentaren gaineko zergaren zerga-oinarriaren % 60 gainditzeko duen kasuetarako.

Azkenik, informazio gehiago lortzeko helburuarekin –kasua bada, iruzur fiskalaren jazarpen-lanak errazteko–, areagotu egin da ondarearen gaineko zergaren aitortpena aurkeztera behartutako pertsonen kopurua.

1. artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen aldaketa.

Bat. 5. artikuluko 7. idatz-zatia aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“7. “Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 62. artikuluan definitzen denaren arabera (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), 250.000 euro arte gehienez ere.”

Bi. 28. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“28. artikulua. Likidazio-oinarria.

Likidazio-oinarria kalkulatzeko, salbuetsita dagoen gutxienekoagatik zerga-oinarria 300.000

euro murriztuko da.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa aplikatzekoa izanen zaie tributuek bai betebeharrak pertsonalarengatik bai betebeharrak errealarengatik ordaintzen dituzten subjektu pasiboak.”

Hiru. 30. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“30. artikulua. Kuota osoa.

Zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkie:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		155.511,88	0,15
155.511,88	233,27	155.511,88	0,20
311.023,76	544,29	311.023,76	0,50
622.047,52	2.099,41	622.047,53	0,90
1.244.095,05	7.697,84	1.244.095,06	1,30
2.488.190,11	23.871,08	2.488.190,11	1,70
4.976.380,22	66.170,31	4.976.380,22	2,10
9.952.760,44	170.674,29	Gainerakoa	2,50”

Lau. 36. artikulua aldatzen da. Hemendik aurrera, hauxe izanen da haren testua:

“36. artikulua. Aitorpena aurkezteko betebeharrak duten pertsonak:

Subjektu pasiboak nahitaez aurkeztu beharko dute aitorpena haien tributuko-kuota (zergaren arauak jarraituz zehaztua, behin bidezkoak diren kenkariak edo hobariak aplikaturik) ordaindu beharrekoa ateratzen denean, edo, kasu hori gertatzen ez denean, ondoko bi kasuetakoren bat gertatuz gero:

1. Haien ondasun edo eskubideen balioa, zergaren arauarekin bat zehaztua, 1.000.000 eurotik gorakoa bada.

2. Subjektu pasiboak enpresa- edo lanbide-jardueretatik eratorritako etekinak izatea erreferentziak ez diren ekitaldian.”

Bost. Xedapen iragankor bat eranstean da, hirugarrena. Hona hemen testua:

“Hirugarren xedapen iragankorra.

1. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, 30. artikuluko eskalan araututako karga-tasei ondoko eskalan araututakoak gehituko zaizkie:

Likidazio-oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Oinarriaren soberakina, zenbateraino (eurotan)	Aplikatzekoa den tasa (ehunekoa)
		155.511,88	0,00
155.511,88	0,00	155.511,88	0,00
311.023,76	0,00	311.023,76	0,00
622.047,52	0,00	622.047,53	0,00
1.244.095,05	0,00	1.244.095,06	0,10
2.488.190,11	1.244,09	2.488.190,11	0,30
4.976.380,22	8.708,66	4.976.380,22	0,60
9.952.760,44	38.566,94	Gainerakoa	0,90

2. 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldietako aitorpenetan, zerga horren kuotaren murriztapenak, 31. artikuluan 2. idatz-zatian jasotakoak, ezin izanen du ehuneko 40tik gorakoa izan.”

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Foru Lege proposamen bat aurkeztu du, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroan Merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legeko 33. artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Gauza ondo jakina da merkataritza txikiak egoera zaila bizi duela gure erkidegoan. Urte asko daramatzate pairatzen saltoki handiak garatzearen ondorioak eta merkataritza-jarduera hiriguneetatik urruntzea.

Errealitate gordin horri gehitu behar zaio irekitzeko ordutegiei buruzko eztabaida berri bat abiarazi dela. Ordutegi horien liberalizazioak zailtasun gehigarri bat dakarkie berriz ere komertzio txikiei, familienak edo langile gutxikoak izateagatik ordutegien arloan saltoki handiekin lehiatzerik ez dutenei. Ordutegiak zabaltzeak beste ondorio oso negatibo bat ere badu langileentzat, familia eta lana bateragarri egiteari dagokionez.

Merkataritzari buruzko lege indardunean ezarri zen urtean 8 jaiegunetan irekitzea gehienez ere. Hori ezarri zen, denda txikien aurkakotasunarekin, aukera horri erantzuteko zailtasunarengatik. Legea

onetsi ostean, Merkataritzaren Mahaiaren esparruan, urtean 4 jaiegun baino gehiagotan ez irekitzea adostu zen. Akordio hori gaur arte mantendu da sektorearen barruan. Orain dela gutxi, Estatuak jaiegunetan libreki irekitzea onetsi zuen, eta horrek berriz ere eragin zuen kezka sektorearen baitan.

Nafarroak arlo hori arautzeko eskumena duenez, uste dugu sektorearentzat positiboa dela orduan lortutako akordioari eustea, sektorean bizikidetasuna ahalbidetu baitu, eta akordioari Lege maila ematea, legea aldaketa hori jasotze aldera aldatuz.

Artikulu bakarra. 33. artikulua aldatzen da. 2. atala. Jaiegunetan irekitzea

Testu berria:

2. idatz-zatia.- Merkataritzaren arloan eskumena dituen departamentuak urtero, Nafarroako Txikizkako Merkataritzaren Behatokiari entzun ondoren eta urteroko irailaren 1a baino lehen, hurrengo urteko egutegia ezarriko du, horren barne direla egun balioduntzat hartuko diren igandeak eta jaiegunak. Gehienez ere lau izanen dira egun balioduntzat joko diren igande eta jaiegunak.

Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen 100eko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen

ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

2. Aipatu Foru Lege proposamena presako prozedurari jarraikiz izapidetzea, eta irakurketa bakarrean.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta adieraztea Gobernuak iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2012ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzen duena.

Ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeak arautu zuen Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7aren esleipena. Foru lege horren xedea zen errespetatzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan herritarrek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako egindako ekarpenen gaineko erabakiak eta erabaki horiek gauzatzeko modu zehatzak, halako moduan non ehuneko 0,7an ezarritako ehunekoan sartutako zenbatekoen azken helmuga Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeak eta irabazi asmorik gabeko entitateak izanen baitziren, Estatuan bezala. Horretarako, dirua GKE-en artean banatzen zen, laguntza programak, lankidetzakoak edo ingurumena hobetzekoak egiteko diru-laguntzen kasuko deialdia eginez.

Halere, Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak nabarmen aldatu zuen manu hori; izan ere, aukerakoa bihurtu zuen Nafarroak nahitaez eman beharreko erabilera hori –governuz kanpoko erakundeen aldekoa, beren eginkizun humanitarioetarako–. Xedapen horrek funts horien erabilera erabakitzeko askatasun-tarte handia ematen dio Nafarroako Gobernuari, nafarren borondatearen kaltetan betiere, zeren nafarrek uste baitute beren PFEZeko ehuneko 0,7 bideratzen dela irabazi asmorik gabeko entitateen nahiz gobernuz kanpo-

ko erakunde eta elkarten gizarte-intereseko helburuetara.

Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeak sortutako egoera hori konpontze aldera, bidezkoa da aurrekontu orokorren foru lege horretan sartutako xedapen hori indargabetzea eta Parlamentu honek 2009ko ekainean onetsitako hasierako testua berreskuratzea, ehuneko 0,7 hori egiaz bidera dadin gizarte-intereseko helburuetara, Nafarroako gizarte-entitateen bidez.

Artikulu bakarra.

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen ehuneko 0,7 arautzen duen ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeko 2. artikulua aldatzen da. Hona testu berria:

"Gizarte-intereseko beste xede batzuetarako ehuneko 0,7ko Funtsa" izeneko berariazko kontusaileko zenbatekoa, 5010, bideratu ahalko da Nafarroako gobernuz kanpoko erakundeek eta elkarteek ondoko xedeak lortze aldera egindako lanera: laguntza ematea, nazioarteko garapenerako lankidetzak, prestaziorik gabeko langabetuentzako arreta, ingurumena hobetzea, eta Autonomia Pertsonalari buruzko Legea babesteko eta gartzeko jarduketak".

Xedapen indargabetzailea.

Indargabeturik gelditzen da Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean berean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Mahaiaren erabakia, azaroaren 5koa, Nafarroako Parlamentuko Batzordeak aldatzen dituena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 5ean egindako bileran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuza García jaunek 2012ko urriaren 25ean aurkezturiko idazkiak, non adierazten baitute, hurrenez hurren, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordeko eta Gizarte Politiketako Batzordeko kide izan nahi dutela.

Ikusita zerbitzu juridikoek horri buruz egindako txostena, Erregelamenduko 31.5 eta 54.1.a) eta b) artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Atxikitzea Manu Ayerdi Olaizola jauna eta Patxi Leuza García jauna, hurrenez hurren, Eko-

nomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordera eta Gizarte Politiketako Batzordera, eta xedatzea batzorde horiek 16 kide izanen dituztela.

2. Adieraztea atxiki gabeko parlamentari horiek aipatu Batzordeetan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izanen dutela. Halaber, gainontzeko Batzordeetara joan daitezke, hitz egiteko eskubi-dearekin baina botorik gabe, zuzenketak edo Batzorde horietan izapidetu beharreko bestelako ekimenak aurkezten dituztenean.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera